



EGITARAUA

JARDUNALDIAK

# TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA IDENTITATEA DENBORAN ZEHAR

2 Baionan - Euskal Museoa | 9:00  
0  
1 **EKAINAREN 13-14** | 17:00  
9





Tradizioa, mendeak zeharkatuz eta aldaketak saihestuz aitzina doan ibai indartsua bezala ikusia izan da luzaz, etnologoen ganik batez ere.

Ikusmoldeak aldatu direla erran genezake.

Gaur, tradizioa, ez da iraganetik orainera datorren ezinbesteko mugimendua bezala irudikatua.

Alde batetik, ezin baita ohidura baten aspaldikotasuna eta iraunkortasuna neurtu eta frogatu.

Bestetik, jakina baita gaurko jendarteak kulturaren eragile izan nahi duela eta tradizioetik atxiki nahi duenaren erabakitzaile. Ohidurak ez ditu erreproduzitu nahi baina bai bereganatu, berrituz bereganatu...

Kultura beti berrituz baldin badoa, nola iraun dezake beraz kultura-nortasunak denboran?

Galdera honi erantzun nahi lioke **Tradizioa eta berrikuntza: identitatea denboran zehar** lemapean antolatuko den kolokioak, herrialde desberdinen esperientziak (Euskal Herria, Frantzia, Europa Ekialdea, Erdialdeko Amerika), arlo zientifikoak (antropologia, soziologia, historia, politika) eta artistikoak (arkitektura, diseinua, dantza, musika, gastronomia, arte plastikoak) gurutzatuz.

Kulturek aldatuz baizik iraun dezaketela, kodigo berriak asmatuz edo zaharkituak berrituz, erronka honen azterketa du jardunaldiak helburu.

N.B. : Mintzaldi guztiak euskarara eta frantsesera itzuliak izanen dira.  
Jatorrizko hizkuntza pastilla batekin seinalatua da.

# EKAINAREN 13A

9:00 : Harrera

9:15 : Lehen agurra (EKE eta EHESS)

FR

9:30 : **Irekitze mintzaldia: Teseoren itsasontziaren enkantean saltzea** - **Gérard Lenclud**, etnologoa, CNRS-eko ikerketa zuzendari ohia

10:10

12:30

## TRADIZIOA, BERRIKUNTZA ETA NORTASUNA EUSKAL HERRIAN

Moderatzailea: Terexa Lekumberri, etnologoa

EU

10:10 : **Tradizioa, identitatearen euskarri eta akuilu. Euskal Herriko adibide zenbait** - **Aitzpea Leizaola**, antropologoa, Konferentzia Irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean

10:50 : Kafe pausa

FR

11:10 : **Azken berrogeita hamar urte hauetako euskal artearen ondarea eta historizitatea** - **Peio Aguirre**, erakusketa arduradun nagusia eta arte kritikaria

FR

11:50 : **Tradizioa eta berrikuntza soka tiran** - **Denis Laborde**, antropologoa, EHESS-eko ikasketa zuzendaria

12:10 : Trukada publikoarekin

12:30 : Bazkaria

14:00

17:20

## TRADIZIOA ETA NORTASUNA EUROPAN

Moderatzailea: Denis Laborde, antropologoa, EHESS-eko ikasketa zuzendaria

FR

14:00 : **Nortasuna eta tradizioak *manouche* munduan. Limousin 2013-2019** - **Jean-Pierre Cavallé**, historialaria, Konferentzia Irakaslea EHESS-Tolosan

FR

14:40 : **Zer da polones izaitea Frantzian: polones etorkinen elkarte biziaren bilakaera (1919-1949)** - **Pawel Sekowski**, Konferentzia Irakaslea Krakoviako Jagellonne unibertsitatean

# EKAINAREN 13A

15:20 : Kafe pausa

EN

**15:40** : Migrazioa eta identitate nazionalaren eraikuntza. Poloniako historiaren gora beherak - **Marcin Galent**, Doktorea Jagellonne unibertsitatean

FR

**16:20** : Neoliberalismoaren aterabide eza: globalizazioa eta hesteko arriskua - **Jean-François Bayart**, politologoa, Genève-eko *Graduate Institute*-ean Irakaslea

17:00 : Trukada publikoarekin

17:20 : Euskal kantua - Julen Achiary eta Mathieu Mendizabal bikotea

18:00 : Bukaera

# EKAINAREN 14A

9:00 : Harrera

9:15

12:30

## TRADIZIOAREN ERABILPENAK ETA INTERPRETAZIOAK

Moderatzailea: Claire Clouet, doktoregaia EHES-en

FR

**9:15** : Tradizioen zaintzeko, zein lege? Kultura eskubideak eta haien aplikatzea - **Cléa Hance**, doktoregaia Paris-Saclay unibertsitatean

ES

**9h55** : Tradizioa, identitatea eta dantza tradizionalaren taularatzea Oaxaca-n, Mexiko-n - **Luis Bravo**, Oaxaca-ko (Mexiko) *Ensamble Dancistico*-ko eta *Iniciarte Alfabetización de las Artes*-eko zuzendaria

10:35 : Kafe Pausa

FR

**10:55** : Tokiko sukaldaritza eta ekoizpenak: sukaldaritza eta nortasunen eraikuntza Frantzian, XVII-XX. mendeetan - **Philippe Meyzie**, Konferentzia Irakaslea historia modernoan Bordeaux-Montaigne unibertsitatean

EU

**11:35** : Euskal sukaldaritza, atzo, gaur eta bihar - **Imanol Zubelzu**, sukaldaria eta ikerlaria, *Basque Culinary Center*, Donostia

12:10 : Trukada publikoarekin

12:30 : Bazkaria

14:00

16:00

## TRADIZIOA SORKUNTZA PROZESUAN

Moderatzailea: Pantxoa Etchegoin, EKE-ko zuzendaria

FR

**14:00** : *Atelier Passion Bois*, Marticorena maiasturu anaiekin topaketa, Claire Clouet-k animaturik

FR

**14:30** : Sorkuntza askatasuna: noraino joan daiteke? Mahai-ingurua Ttotte Darguy-k animaturik, **Xabi Leibar** arkitektoa eta **Jean-Louis Iratzoki** diseinu egilearekin

15:40 : Trukada publikoarekin

16:00 : Kolokioaren bukaera

# ARGIBIDEAK

Euskal Kultur Erakundea


Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

[www.eke.eus](http://www.eke.eus) | [www.etnopoloa.eus](http://www.etnopoloa.eus)

0 (033) 5 59 93 25 25

[info@eke.eus](mailto:info@eke.eus)



## HELBIDEA

BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

37 Kortsarioen Kaia

64 100 BAIONA

Dohainik eta deneri idekia

Izen ematea 06/07a aitzin [www.etnopoloa.eus](http://www.etnopoloa.eus)-en

## ANTOLATZAILEAK



## PARTAIDEAK

